


# ONGi

App bat egin dugu, non erabiltzaileek dohaintzan eman nahi dituzten produktuak argitaratzen dituzten, eta GKEek (gizarte-ekimeneko erakundeak, administrazio publikoaren mende ez daudenak eta irabazi-asmorik ez dutenak) eta horretan aritzen diren elkarteek eskaintzen diren gauzetatik haientzat baliagarriak direnak aukeratzen dituzten. Horrela, dohaintza bizkorragoa eta gazte eta helduentzat eskuragarriagoa izatea eragiten dugu. Produktu honi esker, behartsuek dohaintzak jasoko dituzte, eta produktuek (arropa, jostailuak, elektronika...) bigarren bizitza izango dute. Horrela, gutxiago kontsumituz kutsadura murriztu eta lan-egoera ezegonkorak gutxitu ahal izango ditugu.



Enpresa hau sortzeko, 4 bazkide elkartu gara, mikroenpresa bat sortuz. Jarduerari dagokionez, 3. sektoreko enpresa sortu dugu, merkataritza eta, batez ere, zerbitzu jarduerak aurrera eramaten ditugulako. Beste alde batetik, eremu geografikoari dagokionez, enpresa nazionala da, Espainian bakarrik funtzionatzen dugulako. Mozkinen xedea kontuan hartzen badugu, irabazi-asmorik gabeko enpresa sortu dugu, gure mozkinak helburu sozialetara bideratzen dugulako. Kapitalaren jabetza pribatua izango da estatuak ez duelako esku hartzen, eta azkenik, forma juridikoari dagokionez, sozietate kooperatiboa da. Honelako sozietatea sortzeko arazorik ez genuke izango, izan ere, erantzukizun mugatua da, gutxienez 3 bazkide eta guk estatutuetan finkatutako gutxieneko kapitala eskatzen duelako.

Beste elkarte batzuekin alderatuta, nahiko sistema aurreratua eta berritzailea dugu. Produktuak bidaltzeko erraztasunagatik nabarmentzen da gure proiektua. Zure produktuak saltzeko modu nagusia zure helbidea aplikazioan jartzea da, eta GKE-k zuzenean hautatutakoak jasoko dituzte. Bestalde, hainbeste datu eman nahi ez badituzu (nahiz eta guztiz segurua izan), gure bulegora eramateko aukera egongo da.

Gure enpresa kokatzeko, bulego bat alokatzea erabaki dugu: [bulegoa](#). Bulego horretan lan egingo dugu, lehen esan bezala, bezeroren batek gure laguntza behar izatekotan guk produktua zuzenean bulegoan jasotzeko.

